

Kike Diez de Ultzurrun Sagala

Abiapuntua

Maiatzeko hauteskundeen ondotik, Barcinak pozaren pozez jarraitzen du harat-honat, oraingo honetan erregina koroaturik. "Gaztelaua Nafarroako erregina". Horra maiatzeko hauteskundeek ekarri digutena, egiazki ez baitzen bertzelako aukerarik, PSNren manierak ezagututa. Duela lau urte, jende anitzek zintzoki pentsatu zuen aldaketa Nafarroa Bairen eta PSNren eskutik etorriko zela, baina aukera hura PSNk zapuztu zuen. Orain, aldaketa hainbat tokitan gertatu da, eta Bildu izan da eragile nagusia. Ez, ordea, Nafarroan. Hauteskunde gauean bertan izan zen Bilduk hiriburuko Labrit pilotalekuan antolatutako jaitik buru makur atera zenik. Mendebaldeko emaitzak goraka ospatzen ziren bitartean, bi datuk hoztu egin zuten jende askoren gogoak; Iruñeko eta Nafarroako emaitzek, alegia. Bozen ondoko egunetan, arrangura mingots eta hits berbera jalgi zen adineko iruindar frankoren ezpagnetatik: "Orain dela lau urte, bazirudien Nafarroa Bairekin lortuko zela, eta orain, Bildurekin, baina k!a! guk ez dugu aldaketarik ikusiko! Zuek, ez dakit". Egia erran, inoiz aldaketarik gertatzen bada, ez da PSNren eskutik etorriko, Alderdi Sozialista Nafarroako erregimenaren barne munitetan iltzez txertatua baitago; horretan, behintzat, iduri du batzuk eta bertzeak bat datozela.

Nafar Parlamentuko emaitzei erreparatuta, aurrerapausorik izan da. Konparazio batera, Iruñerriko, inguruko eta Pirinioetako herri txiki askotan gehiengo dira Nafarroa Bai eta Bildu, betidanik eskuindarrek botoak *esportaka* lortu izan dituztenean. Erriberari dagokionez, ordea, gauzek bere horretan dira, salbuespenak salbuespen; Erriberak eremu latza izaten segitzen baitu jende euskaltzale eta abertzalearendako, baina, kasu! baita Ezker Batuak eta Batzarrek osaturiko Ezkerra koalizioarendako ere. Hala ere, NaBai 2011, Bildu eta Ezkerraren artean 18 eserleku erdietsi dituzte Parlamentuan; ez da aski, jakina, Nafarroara aldaketarik den mendrena ere ekartzeko, baina zerbait bada, eta zerbait gehiago ere izan daiteke: abiapuntu bat, alegia. Argi dago, horrenbertzez, hiru talderen arteko oinarri



JOSU SANTESTEBAN

soziala zabaltzeko beharko dela, hirurak izan beharrezko etxean botoa ematera joan gabe gelditu direnak mugiarazteko, PSNko boto-emaleei keinua egiteko, Erriberako jende aurrerazalea aldaketara ekartzeko.

Baina, ezer baino lehen, talde bakoitzak bere etxea ongi antolatu eta txukundu beharko du, eta alkate-makila eskuratu duten udaletan ongi gobernatu; horrexek sekulako garrantzia baitu, bai eta Bilduk Gipuzkoan egiten duen kudeaketak ere. Azken buruan, inor ere ez dago sobran. NaBaik, esate baterako, bide puska bat egina du, ez da izen hutsa, izana ere badu, eta, erakutsi du gauza dela bertzelako jendea euskaltzaleen eremura erakartzeko, eta balizko gehiengo berri horrek holako indar baten beharra ere izan du. Bertzela erranik, ezker abertzaleari sekula botoa emanen ez lioketen zenbait sektore eroso egon litezke holako indar baten baitan edo NaBairen balioak bere egiten dituen talde baten baitan.



NaBai 2011, Bildu eta Ezkerraren artean 18 eserleku erdietsi dituzte Parlamentuan; ez da aski, jakina, Nafarroara aldaketarik den mendrena ere ekartzeko, baina zerbait bada, eta zerbait gehiago ere izan daiteke: abiapuntu bat, alegia. Argi dago, horrenbertzez, hiru talderen arteko oinarri soziala zabaltzeko beharko dela, hirurak izan beharrezko etxean botoa ematera joan gabe gelditu direnak mugiarazteko



Aldaketarako bidean, halaber, ezinbertzekoa izan da ETA behin betiko desagertzea, mehatxatu orok behingoan atsedean har dezan, eta, era berean, Bilduri botoa emandako EAko nafar jendeak lasaitu ederra har dezan. Eta, joan den eguneko komunikatua irakurri ondoren, jende horrek eta bertze anitzek lehen bezain deseroso jarraitzen dute, Bilduko buruek komunikatua alde gutietatik laudatu arren. ■